



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 21a

74. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa, etxeko langileak kontratatzeagatiko kenkaria ezartzeko. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideragarritasun azterlanak erants ditzan 2013-2016 urteetarako Inbertsio Publikoen Plan berriko proiektuetan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidegoko izatezko bikoteen erregistroa sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aplika dezan Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedabideen sektorearen egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten du *Decidir nos hace libres* izenburua duen adierazpenarekin eta Nazioko Gobernuari exijitzen dio Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea bere horretan mantentzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturalekotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituenena. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa jaits dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordezko aldaeren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzen dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak eta elkartasuna adierazten baitio gertaera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak bazter utzia (14. or.).
- Jabeldura, Nafarroaren autogobernua eta foru araubide demokratikoa defendatzeari buruzkoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egin (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Sustapen Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkeriak izendatzea (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko irailaren 12an hartutako erabakiaren bidez, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 127. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektua presako prozedurari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **zortzi egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 4an eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkion proiektuari.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, sektore publikoko langileek, 2012ko abenduan jaso beharreko ordainsariak murriztu eginen dira dagokien zenbatekoan, aparteko paga eta hilabete horretako berariazko osagarria, edo paga osagarri baliokideak, kendu eginen baitira. Sektore publikoa Estatu Aurrekontu Orokorreari buruzko Legean bezala ulertuko da.

Zioen azalpenean adierazten denez, presako eta ohiz kanpoko neurria da hau, zerga-baterakuntzarako eta kontu publikoen iraunkortasunerako prozesuak eskatutakoa, administrazio publikoetako langileen arloko gastua arrazoizkoagoa egin eta murrizteko xedea duena. Hori dela eta, oinarritzko neurria da, eta, eskumenen ikuspuntutik begiratuta, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13.a eta 156.1 artikuluetan xedatutakoaren babesean eman da: jardura ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehaztea eta horren koordinazioa Estatuaren eskumen eskusibokoak dira, batetik, eta bestetik, autonomia erkidegoen eta Estatu Ogasunaren arteko koordinazioa eta espainiar guztien arteko elkartasuna.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.b) artikuluari jarraikiz, Nafarroari dagokio, bere foru araubidearen kariaz, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario publikoen

estatutu araubidearen arloko eskumen osoa, Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz. Horretaz baliatuta, Nafarroako araubide berariazkoa du, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruzko foru legeetan jasotakoa.

Konstituzio Auzitegiak emandako zenbait epaitan (148/2006 epaia, maiatzaren 11koa; 195/2006 epaia, ekainaren 22koa; 297/2006 epaia, urriaren 11koa), deklaratu du Nafarroan aplikatzekoak direla langile publikoen lansariak izoztu edo mugatzeko neurriak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan urtez urte jaso direnak, Konstituzioaren 149.1.13.a eta 156.1 artikuluetan oinarrituta. Doktrina konstituzional horrekin bat, Nazioko Gobernuak langile publikoen lansariak murrizteko aurreko neurri bat, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak hartzeari buruzko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege-dekretuaren bidez hartutakoa, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatu zuen, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea onetsiz. Ildo horretan, langile publikoen 2012ko abenduko aparteko paga kentzeko neurria, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 2.1 artikuluan jasotakoa, langileen arloko gastuari eusteko neurri bat da, aurrekontuaren betetzean berehalako eragin zuzena izanen duena eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeko dena.

Kontuan harturik 2012ko abenduko aparteko paga kentzeak sektore publikoko langile guztiei eraginen diela, foru lege honetan aurreikusi da Nafarroako administrazio publikoetako langileei aplikatzea, zein den ere haien araubide juridikoa, funtzionarioena nahiz lan-kontratudunena, bai eta sozietate eta fundazio publikoetako langileei ere. Era berean, neurri hau administrazio publikoen zerbitzuko goi kargudunei behin-behineko langileei ere aplikatuko zaiela ezartzen da, eta Nafarroako gainerako entitate publikoei ohartarazten zaie Estatuko legegilearen asmo garbia dela neurri hau sektore publikoko langile guztiei -sektore publikoa zentzurik zabalenean hartuta- aplikatzeko behar diren bitartekoak sustatzea, halaxe jasotzen baita Errege Lege-dekretuaren zioen azalpenean eta laugarren xedapen gehigarrian.

2012ko abenduko aparteko paga kentzeak Nafarroako sektore publikoko langileentzat ekarriko dituen ondorioak arintze aldera, hurrengo hiru urteetan, administrazio eta ente publikoek urtarilaren eta uztailaren lehen egunetara aurreratu ahal izanen dute beren zerbitzuko langileen aparteko

pagen ordainketa, betiere entitatearen ekonomia-eta aurrekontu-egoerak horretarako aukera ematen badu. Nafarroari, bere foru araubidearen kari-az, Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidearen gainean dagokion eskumen historiko eta eskusiboaz baliatuz egiten den aurreikuspen honek ez dakar gastu gehikuntzarik langileen arloan, eta ez du inolako eraginik aurrekontu orekan, ez eta uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako neurria, aparteko paga kentzekoa, zorrotz betetzeari dagokionez ere, foru lege honen xede nagusia baita, hain zuzen ere, aipatutako errege lege-dekretu hori Foru Komunitate honetako sektore publikoaren langileei aplikatzea.

20/2012 Errege Lege-dekretuak ezartzen duenez, aparteko paga kentzeak sortuko dituen zenbatekoak etorkizuneko ekitaldietan erabiliko dira ekarpenak egiteko pentsio planei edo aseguru kolektiboko kontratuei, erretiroaren kasurako estaldura dutenei, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren menpe, eta kasuan kasuko aurrekontu legeetan zehazten diren modu eta irispenarekin. Kontuan harturik xedapen honek ere oinarrizko izaera duela, foru lege honetan aurreikusten da inguruabar hau estatuan gertatzen denean, aplikatu ahal izanen dela, halaber, Nafarroako administrazioetan eta sektore publikoko enteetan, baldintza berdinetan edo antzeko neurri baten bitartez.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan foru legeetan ezarritako berariazko lansari-sistema dela eta, beharrezkoa da foru lege mailako arau bat onestea, neurri hori Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileei aplikatzea jasoz, bai eta foru lege honetan hurrengo urteetarako aurreikusitakoak ere, arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumen historikoez baliatuz.

1. artikulua. Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2012ko abenduko aparteko paga.

1. Aurrekontu oreka bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 2.1 artikulua aplikatuz, Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2012ko abenduko aparteko paga kendu da. Sektore publikoa Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 22.Bat artikuluan definitu bezala ulertuko da. Horretarako, neurri hau honakoei aplikatuko zaie:

a) Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei, zein den ere haien araubide juridikoa.

b) Nafarroako administrazio publikoetako goi kargudunei eta gainerako behin-behineko langileei, bai eta kargua utzi ondorerako ezarritako presazioa jasotzen ari diren goi kargudun ohiei ere.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei.

d) Sozietate eta fundazio publikoen zerbitzuko langileei, bai eta Nafarroako administrazio publikoekin lotura duten edo haien menpe dauden gainerako enteetakoei ere, zuzendaritzako langileak barne.

2. Kentzeak kasuan kasuko aparteko pagaren zati diren lansari-kontzeptu guztiak hartuko ditu, langile mota bakoitzari aplikatu beharreko araudia- ren edo lan hitzarmen kolektiboaren arabera.

3. Langileen lansari araubidean aparteko pagak jasotzea berariaz aurreikusirik ez dagoen kasuan, edo urtean bi baino gehiago jasotzen direnean, urtean guztira jasotzen diren lansarien hamalauren bat kenduko da, errendimendurako pizgarriak kontuan hartu gabe. Kenketa hori aurten oraindik jaso ez diren nominen artean hainbanatuko da, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuak indarra hartzen duenetik aurrera.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko langileak jasotzen dituen lansariak, lanaldi osoagatik eta errendimendurako pizgarriak kontuan hartu gabe, urtean zenbatuta, ekitaldi honetarako ezarritako lanbidearteko gutxieneko soldataren halako 1,5 egiten ez dutenean.

5. Foru lege honetan jasotako neurriak ukitutako langileen kotizazioak kalkulatzeko, Gizarte Segurantzak finkatutako irizpideak aplikatuko dira, edo, kasua bada, langilea afiliaturik dagoen gizarte aurreikuspeneko sistemak finkatutakoak.

2. artikulua. Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileek aparteko pagak jasotzeko moduaren aldaketa, 2013tik 2015era bitarte.

1. 2013, 2014 eta 2015ean, Nafarroako administrazio publikoek eta sektore publikoko gainerako erakunde eta enteek urtarrilaren eta uztailaren lehen egunetara aurreratu ahal izanen die aparteko pagaren ordainketa, foru lege honen aurreko artikuluan ezarri bezala, aparteko paga kentzeagatik lansari murrizagoak izan dituzten langileei, betiere entitatearen ekonomia- eta aurrekontu-egoerak horretarako aukera ematen badu.

2. Aparteko pagen ordainketa aurreratua langile finkoei nahiz aldi baterako langileei eginen zaie, betiere zerbitzu harremana paga aurrerazten dene- tik sei hilabete gutxienez luzatuko dela aurreikus- ten bada. Aurreikusitako iraupena txikiagoa dene- an, dagokion zati proportzionala aurreratuko da.

3. Aparteko pagaren ordainketa aurreratua egin ondoren, zerbitzu harremana aurreikusitako epean baino lehenago bertan behera gelditzen bada, uki- tutako langileei kasuan kasuko likidazioa eginen zaie, jasotako gehiegizko zenbatekoa itzultzeko eskatuz, beharrezkoa denean.

Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako sekto- re publikoaren zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz izenpetutako akordio eta lan hitzarmenen etendura partziala.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretu- an xedatutakoarekin bat, Nafarroako sektore publi- koaren zerbitzuko langileen arloan izenpetutako akordio, itun eta lan hitzarmenek etendura partzia- la izanen dute, foru lege honetan lansarien arlor- ko jasotako neurriak behar bezala aplikatzeko behar den moduan.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroan Jus- tizia Administrazioaren zerbitzuan Foru Komunita- teko Administrazioaren menpe aritzen diren langi- leak.

1. Kendutako aparteko paga 2012ko abenduan likidatuko zaie Nafarroan Justizia Administrazioa- ren zerbitzuan aritzen diren langileei, Aurrekontu oreka bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neu- rriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege- dekretuan ezarritako irizpideekin bat.

2. Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez sol- data aurrerakinak ezarri ahal izanen dira 2013an, Nafarroan Justizia Administrazioaren zerbitzuan aritzen diren langileentzat; aurrerakin horiek langi- le finkoentzat nahiz aldi baterako langileentzat izan- nen dira, baldin eta aurreikusirik badago hauen kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa izanen dela. Aurrerakinak besterik gabe emanen dira, non eta interesdunak ez duen adierazten, horretarako ezarritako epean, ez duela horrelako- rik nahi.

Soldata aurrerakinen zenbatekoa mailak eta maila bakoitzeko batez besteko lansariak kontuan hartuz ezarriko da; 2013ko urtarrilaren lehen egu- netan ordainduko dira, eta 2013ko ekaineko eta abenduko nominetan kenduko, erdiz eta erdi. Zer- bitzu harremana lehenago amaitzen bada, edo- zein arrazoirengatik, langile horiei likidazioa egi- nen zaie eta, falta den zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaie, beharrezkoa bada.

Hirugarren xedapen gehigarria. Aparteko paga kentzeak dakartzen zenbatekoak berreskura- tzea.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek ezartzen dutelarik sektore publikoko langileen aparteko paga kentzeak dakartzen zenbatekoak

etorkizuneko ekitaldietan erabiliko direla ekarpenak egiteko pentsio planei edo aseguru kolektiboko kontratuei, erretiroaren kasuaren estaldura barne hartzen dutenei, Nafarroako Gobernuak behar diren ekimenak hartuko ditu, Nafarroako sektore publikoko langileek berreskura ditzaten zenbateko horiek, horrelako edo antzeko neurri bat ezarriz. Foru lege honetan jaso den bezala, aparteko paga kentzearen ondorioz lansari murrizagoak jaso dituzten langile guztiek berreskuratuko dituzte zenbateko horiek, une horretan entitate-arekiko zerbitzu harremanak iraun ala ez.

Azken xedapenetako lehena. Lansarien likidazioak.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan xedatutakoarekin bat, foru lege honen esparruan sartutako langileei ez zaie inolako zenbatekorik likidatuko 2012ko abenduko aparteko pagaren kontzeptuan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa, etxeko langileak kontratatzeagatiko kenkaria ezartzeko.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako PFEZari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena, etxeko langileak kontratatzeagatiko kenkaria ezartzeko.

Proposamen hori 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideragarritasun azterlanak erants ditzan 2013-2016 urteetarako Inbertsio Publikoen Plan berriko proiektuetan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideragarritasun azterlanak erants ditzan 2013-2016 urteetarako Inbertsio Publikoen Plan berriko proiektuetan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko proiektu-

en bideragarritasun azterlan bana erants dezan 2013-2016 urteetarako Inbertsio Publikoen Planen.

2. Planak, besteak beste, jarduketen ekonomia-, finantza- eta gizarte-errentagarritasuna balioetsiko du.

3. Azterlanak ustiapen-gastuei buruzko aurreikuspena jasoko du, gutxienez ere 10 urteko epe-rako, hala behar denetan."

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidegoko izatezko bikoteen erregistroa sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidegoko izatezko bikoteen erregistroa sor dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako izatezko bikoteen erregistroa sor dezan, Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarrean jasotzen denari jarraikiz.

2. Erregistro hori kasuko arauaren bidez erregula dezan, halako moduan non jada jardunean diren udal erregistroekin bateragarria izanen baita, ziurtatze aldera izatezko bikoteen erregistroetan egindako inskripzio guztien datu-base zentralizatu eta gaurkotu bat, uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarrean xedatuarekin bat etorritz.

3. Nafarroako bikote egonkorren edo izatezko bikoteen erregistroko inskripzioa erregistroa berataratuta edo modu telematikoan egin ahal izateko modua ezar dezan, bai eta Nafarroako udaletan egin ahal izatekoa ere."

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aplikatzen Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aplikatzen Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egiazki aplikatzen dezan 16/1985 Legeko bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa, ondare historikoa bere osotasunean eraginkortasunez babestea ziurtatze aldera."

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedabideen sektorearen egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedabideen sektorearen egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan". Horren jatorria da Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako mozio bat, 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Komunikazioaren sektorearen lan-egoerari buruz. Azterlanak ondokoak jasoko ditu:

a) Profesionalen kopurua, jardunean nahiz lan-gabezian daudenena; horien jarduna arautzen duten hitzarmenak; gerta daitezkeen egoera irre-

gularrak; lan baldintzak eta baldintza ekonomikoak, sektorearekin lotutako enpresak, eta abar.

b) Komunikazioaren sektoreak Nafarroako BPGean duen inpaktu ekonomikoa, produkzio-esparru guztiak barne (kazetaritza enpresak, publizitatea, blogak, ekoizleak, Komunikazio Fakultatea,...), kontuan hartuta diru-sarrera materialak ez ezik, hedabideen bidez "Nafarroa" marka nazioan eta, zenbaitetan, nazioartean hedatzen (San Ferminak, kirol ekitaldiak eta abar) heldu den etekina ere.

c) Hedabideen aniztasunari buruzko azterlana.

d) Hedabideetan euskararen presentziari buruzko azterlana.

e) Ahultasunak, sendotasunak eta sektorea sustatzeko jardun-eremuak."

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten du *Decidir nos hace libres* izenburua duen adierazpenarekin eta Nazioko Gobernuari exijitzen dio Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea bere horretan mantentzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten du *Decidir nos hace libres* izenburua duen adierazpenarekin eta Nazioko Gobernuari exijitzen dio Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea bere horretan mantentzea." Horren jatorria da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2012ko ekainaren 22ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak positiboki baloratzen du "Decidir nos hace libres" izenburua duen adierazpenaren edukia, zeina Sexu- eta Ugalketa-eskubideen aldeko Estatuko Plataformak taxutu baitu; izan ere, adierazpen horrek aurka egiten dio emakumeek beren amatasunaren gainean erabakitzearen arloan lortutako eskubideak galtzeari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nazioko Gobernuari exijitzen dio Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea mantentzea eta ziurta dezan emakumeek haurdunaldia borondatezko etetea eskubidea baliatu ahal izatea."

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko irailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan Nafarroako Gobernuko Ondareko zuzendari nagusiaren otsai-

laren 10eko 27/2011 Ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Hiriko Liburutegi Nagusi" horren izaera berezia defini dezan eta kulturareferentziako entitatea izan dadin bere tokiko funtsari dagokionez eta tokiko informaziogune gisa, erdigunean egoteagatik, Liburutegi Publikoen Sarearen barrenean duen administrazio-mailagatik, eta pertsona asko eta askorentzat urte askoan erreferentziatzeko tokia izateagatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jendaurreko arreta-zerbitzu jarraitua eman dezan astelehenetik larunbate-

ra, 08:30etik 20:30era, eta, hortaz, behar diren giza baliabideak jar ditzan ordutegi hori betetze aldera, Nafarroako Gobernuaren deialdi publikoetatik.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du oinarrizko funts bat eduki dezan, 15.000 dokumentukoa gutxienez ere, liburutegia irekitzeko, eta bi erakundeek aurrekontu egoki bat eslei diezaioten funts hori osatzeko, bai Gobernuarentzat bai udalarentzat egokia den ehunekoan. Liburutegietako zerbitzu teknikoek kalkulatu dute zenbateko kontusaial behar den oinarrizko funts hori osatzeko. Konpromisoa heldu diren hiru urteetan har dezaten premiatzen ditugu, hasierako funts hori baliagarria izan dadin.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Alde Zaharrak eta Iruñak berezkoak dituen elebitasun-ezaugarriak aintzat har ditzaten, eta hizkuntza-harmoniaren eredu izan dadin.

6. Ikusita bizilagunen parte-hartzea zer garrantzitsua den Alde Zaharreko biztanleriaren beharri-zanak eta desioak taxutzean –garrantzi hori islatzen du Alde Zaharreko Liburutegi Duin Baten Aldeko Lantaldeak prestatutako “Erkidegoaren Desiderata” izeneko dokumentuak–, Nafarroako Gobernu premiatzen da aintzat har dezan dokumentu hori, liburutegi publikoaren lan-tresna gisa.

7. Kultur erakunde publikoa den aldetik, Nafarroako Gobernu premiatzen da irisgarritasunaren arloko legedi indarduna betetzen dela ikuska dezan, hartara bermatuz herritar orok erabili ahal izanen duten zerbitzu bat dela, duten egoera dute-la ere. Iruñeko nahiz Nafarroako gobernuak premiatzen ditugu ikuskapen horretan, irisgarritasunari

dagokionez, gai honetan ukituak diren elkarte zibilen laguntza eska dezaten, auditore lana elkarte horiek egite aldera.

8. Bai bere filosofian, bai bere izaera publiko eta unibertsalean, UNESCO eta IFLA (liburutegi-erakundearen erreferentea) bezalako erakundeek eta Liburutegi Publikoaren Manifestuak (1994) ezarritako nazioarteko jarraibideak bete ditzan premiatzen dugu, eta bizikidetasuneko, gogaidetasuneko eta aniztasuneko lekua izan dadin, eta hori dena isla dezan bere funtsen nahiz bere kultur-hedapenaren bidez.

9. Behar adina kudeaketa-tresna edukitzera premiatzen dugu, halako moduan non herritarrak partaide sentituko baitira haren garapen kultural eta sozialean; kontuan har daitezten haien eskaerak eta lankidetzan aritu nahi duten erkidego-entitate guztiekin aritu dadin lankidetzan, bereziki Alde Zaharrekoekin, txertatua dagoen erkidegoko liburutegia izan dadin.

10. Zerbitzu publikoa den aldetik, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako Gobernuaren indarreko arauak bete ditzan oro har; esaterako, Liburutegi Zerbitzuen Zorroa eta Irakurketa Publikoaren Mapa.

11. Kulturaren Vianako Printzea saridun Pablo Antoñana Chasco idazle vianarraren omenez, eta haren lana eta Iruñeko Alde Zaharrari zion estimu ezaguna aintzat hartuz, bi erakunde horiek premiatzen ditugu “Iruñeko Udalaren Pablo Antoñana liburutegia” izena eman diezaioten ofizialki.”

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturalerikotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituenaz.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko irailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, interes kulturalerikotzat deklaraturako eraikin guztiak kontuan hartuko dituenaz.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrean abenduaren 31 baino lehen aurkez dezan 2013rako bisitaldi turistiko-kulturalen programa bat, ondokoak jasoko dituenaz:

- Interes kulturalerikotzat deklaraturako eraikinen zerrenda, Nafarroako Gobernuak kudeatutakoena. Jarduketa plan zehatza, erreferentzia bere-

zia eginez intereseko talde berriei –besteak beste, ikasleak eta adinekoak–.

- Interes kulturalerikotzat deklaraturako eraikinak, azken hamarkadan inbertsio handiak izan dituztenak eta beste erakunde batzuek kudeatutakoak. Hitzarmenaren oinarriko alderdiak, aurreikusitako bisita-programa ziurtatzen dutenak.

- Beste eraikin batzuk, interes kulturalerikotzat deklaratu ez diren arren jendearen estimua eta iritzi ona dutenak eta bisita-programa berariazko bat izatea merezi dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baliabideak jar ditzan, aurrekontuak horretarako beta ematen duen neurrian, eraikinen jardun berekia sustatzeko edo aipatu plana garatu ahal izateko hitzarmenak egiteko.”

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa jaits dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa jaits dezan.”

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko apirilaren 20ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordezeko aldaeren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera.*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordezeko aldaeren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera."

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua.*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua."

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzeko.*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzeko."

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa

baztertea. Mozio hori 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzea eta, horrenbestez, pribatizatzea"

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak eta elkartasuna adierazten baitio gertaera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak eta elkartasuna adierazten baitio gertaera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari"

Legebiltzarreko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2012ko irailaren 12an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Jabeldura, Nafarroaren autogobernua eta foru araubide demokratikoa defendatzeari buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroaren autogobernua eta foru araubide demokratikoa defendatzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik ondokoa dio, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren aurrean azalduta:

Idazki honen bidez ondoko ekimen parlamentarioa, premiazkoa, aurkezten duela, Eledunen Batzarrak heldu den irailaren 17an –astelehena– eztabaidatzeko eta izapidetzeko eta Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Ekimena politika orokorreko jabeldura bat da, jakiteko ea zein den Nafarroako Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcina andrearen iritzia Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernuaren eta foru araubide demokratikoaren defentsari buruz.

Gobernuko lehendakari Barcina andrean adierazpen batzuk egin zizkion hedabide bati atzo, hilak 13, heldu den urriaren 2ko Lehendakarien Konferentziari buruz. Besteak beste, hitzez hitz esan zuen: “Nafarroak autogobernua izan du historian zehar, baina autogobernu hori ez da ongizate handiago baten sinonimoa (...) Hitzarmen Ekonomikoa ez da erkidego baten ongizaterako panazea”

Adierazpen horiek oso-oso larriak dira, bai adierazpenak egiten dituenak gure foru autogobernari buruz duen uste instituzional, politiko eta pertsonalari dagokionez, bai egungo lehendakariak heldu den urriaren 2ko konferentzian izan dezakeen jarrerari dagokionez.

Auzi hau oinarrikoa eta funtsekoa da, bai eta, inondik ere, izaera orokorrekoa ere, zeren gure sistema instituzionalak berezkoak ditu gure autogobernuaren eta foru araubide demokratikoaren ontasunen defentsa eta begiramena. Modu horretako adierazpenek, aldeztatik argibiderik eman ezean, beharrezkoa egiten dute eztabaida bat, argituko dituen baieztapen hain oker eta desegokiak eta argituko duena Lehendakarien Konferentzian Nafarroa ordezkaturiko duenaren eta mezua- ren egokitasuna.

Finean, Nafarroako gizarteak eta Nafarroako Parlamentuko bere ordezkariak jakin behar dute ea lehendakari Barcina andrean benetan defendatuko duen egungo gure foru-sistema ala Alderdi Popularraren estrategia zentralista eta zentraliz- tzaile baten parte izanen den.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andrean ezar dezala zein jarrera duen Nafarroaren autogobernuak eta foru araubide demokratikoak Nafarroaren historian, orainean eta etorkizunean duten eraginari buruz, eta Nafarroako Foru Komunitatearen gizarte ongizatearen mailetan izan duen eta izan dezakeen eraginari buruz. Bai eta heldu den urriaren 2ko –edo egiten den eguneko– Lehendakarien Konferentzian nola defendatu nahi duen, zer argudio, estrategia eta taktika erabilita, gure autogobernua eta foru araubide demokrati- koa eta Nafarroaren ongizatean duten eragina.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Sustapen Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2012ko irailaren 18an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

1. Pertsona hauek izendatzea Sustapen Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkari:

– María Victoria Castillo Floristán andrea.

– Juan Carlos Longás García jauna.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera